



Resistimos para vivir, marchamos para transformar!  
Résistons pour vivre, marchons pour transformer!

V. NAZIOARTEKO EKINTZA  
Urriaren 17tik martxoaren 6ra

zubi guztien gainetik  
Mugarik ez! Transnazionalik ez!

## ARAZAKERIA INSTITUZIONALA

Estatu eta botere espazioetako diskurtso eta praktika instituzionalak dira, administrazio publikoan, enpresa munduan, alderdi politikoetan, hezkuntza sistematan, sindikatuetan edo osasun zentroetan gauzatzen dira. Arrazakeria instituzionalak pertsona migratuen eskubideen aitortza osoa eta hiritartasuna ukatzea dakar.



### BIZITZA DUINA IZATEKO UDALEK ETA ALDUNDIEK EZARRITAKO OZTOPO ARRAZISTAK

- Erroldatze aukera
- Errotze txostena
- Familia berrelkartze-eko eta seme-alaben zaintza lortzeko baldintzak



### HERIOTZA ZIBILA: ATZERITAREN LEGEA

Arrazakeria instituzionalaren legezko tresna da. Espainiar estatuan 600.000 pertsona migratu 3 urtez egoera irregularrean bizitzera kondenatzen ditu eta polizien indarkeria zein jazarpenaren menpe uzten ditu beraien esku ez dagoen auzi administratiboa konpontzea ezinezkoa zaielako.



### MIGRAZIOAREN KRIMINALIZAZIOA

Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak azpiegitura instituzional arrazistak dira, aske zirkulatzeko eskubidea baliatu besterik egin ez duten pertsona migratuentzat sistema arrazistak legitimatutako kartzelak dira.



GIZATIARRA

EZ GIZATIARRA

Muga ikusgarriak eta muga ikusezinak

# arrazakeria



Arrazakeria 1492tik ezarritako botere hierarkia da, gorputz batzuk gizatiarren lerrotik gora kokatzen ditu (nagusitasun posizioan), eta ez gizatiartzat jotzen dituen besteak lerro horren azpian (mendeko posizioan). Kolorea ez da arrazakeria forma bakarra, etnizitate, kultura edo erlijioaren bitartez ere markatu daiteke.

## GIZARTE ARRAZAKERIA

Pertsona batek edo talde batek beste pertsona arrazializatu eta migratuekiko nagusitasuna inposatzeko baliatzen dituen aurreiritziak, diskurtsoak, etsai jarrerak, jarrera baztertzailak, gorroto sentimenduak eta gizarte praktikak dira, horietan elementu sinbolikoek nahiz botere elementuek eta hierarkizazio moralak esku-hartze zuzena dutelarik.



### ERREALITATEAREKIN BAT EZ DATORREN IRUDIKAPENA

Hedabideek pertsona migratuei buruz eskaintzen duten irudia polarizatuta dago, alde batetik berezko historia, ahotsa eta kultura aberatsak dituzten sujeta politikoan inbisibilizazioa dugu eta bestetik, menpeko, arriskutsu behartsu, inbaditzaile formazio akademikorik edo teknikorik gabeko sujeta gisa irudikatzen dituen hiperbisibilizazioa.

